Bestelako xedapenak

HERRIZAINGO SAILA

338

EBAZPENA, 2008ko abenduaren 16koa, Trafiko zuzendariarena, 2009. urtean trafikoa arautzen duten neurri bereziak Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzeko dena

Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide-segurtasunari buruzko Legearen testu artikulatua den martxoaren 2ko 339/90 Legegintzako Errege Dekretuaren 16. artikuluan azaltzen denez, trafiko arloko agintaritzari eratxiki zaio trafikoa erregulatzeko neurri bereziak hartzeko ahalmena, zirkulazioaren segurtasuna edo arintasuna bermatzeko kariak gertatzen direnean. Zirkulazioko Erregelamendu Orokorrari buruzko azaroaren 21eko 1428/2003 Errege Dekretuak, besteak beste 37. eta 39. artikuluetan, neurri horietako batzuk zehazten ditu eta horiek hartzeko prozedura arautzen du.

Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan, Trafiko zuzendariari dagokio arestion aipatu diren neurriak hartzea, trafikoari eta ibilgailuen zirkulazioari buruzko Estatuko legeria betearazteko eginkizuna Euskal Autonomia Erkidegoari besterendu dion urriaren 15eko 3256/1982 Errege Dekretuaren eranskineko B.1.g) atalean eta Herrizaingo Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezarri duen azaroaren 8ko 364/2005 Dekretuaren 16.2.e) artikuluan xedaturik dagoenarekin bat etorriz.

Ebazpen honen xedea trafikoa arautzeko neurri bereziak ezartzea da, zirkulazioaren segurtasuna eta arintasuna ukitzen dituzten ibilgailuen joan-etorri masiboak aurreikusten diren egunetarako. Egun horiek hainbat faktore kontuan hartuta aukeratu dira, besteak beste, Euskal Autonomia Erkidegoko jaiegunen egutegia, asteburuak, urtealdien araberako oporren hasiera edo amaierako epealdia, jai diren zubiak edo bestelako gertakariak.

Orobat, ebazpen honen bidez, Euskal Autonomia Erkidegoan zeharkako korridore batzuk zabalduko dira, garraiolariek egun jakin batzuetan Erkidegoa zeharkatu ahal izateko. Korridoreak aukeratzeko irizpide nagusia bide-segurtasunean eta zirkulazioaren arintasunean ahalik eta eragin txikiena izatea da; horretarako, Trafiko Zuzendaritzak eskura dituen datuak eta trafikoa zaindu, kontrolatu eta erregulatzen lortutako esperientzia erabili dira. Hala izanik, korridoreak eratzeko aukeratutako bide guztiek zirkulatzeko bi errei edo gehiago dituzte norabide bakoitzerako, BI-625 errepidea izan ezik. Tarte horren helburua da AP-68 eta A-8 errepideetako lotuneak lotzea,ibilbideei jarraipena emateko.

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE INTERIOR

338

RESOLUCIÓN de 16 de diciembre de 2008, del Director de Tráfico, por la que se establecen medidas especiales de regulación de tráfico durante el año 2009 en la Comunidad Autónoma del País Vasco.

El artículo 16 del Texto Articulado de la Ley sobre Tráfico, Circulación de Vehículos a Motor y Seguridad Vial, aprobado por el Real Decreto Legislativo 339/1990, de 2 de marzo, atribuye a la autoridad de tráfico la facultad de adoptar medidas especiales de regulación del tráfico cuando lo aconsejen razones de seguridad o fluidez de la circulación. Los artículos 37 y 39, entre otros, del Real Decreto 1428/2003, de 21 de noviembre, Reglamento General de Circulación, concretan algunas de estas medidas y regulan el procedimiento para su adopción.

En el ámbito de la Comunidad Autónoma del País Vasco compete al Director de Tráfico adoptar las citadas medidas, de acuerdo con lo dispuesto en el apartado B.1.g) del anexo del Real Decreto 3256/1982, de 15 de octubre, por el que se transfiere a la Comunidad Autónoma del País Vasco la ejecución de la legislación estatal sobre tráfico y circulación de vehículos, y el artículo 16.2.e) del Decreto 364/2005, de 8 de noviembre, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Interior.

La presente resolución tiene por objeto establecer medidas especiales de regulación del tráfico para aquellas fechas en que se prevén desplazamientos masivos de vehículos que afectan a la seguridad y fluidez de la circulación. La elección de dichas fechas se ha realizado atendiendo a diversos factores como son el calendario de festividades de la Comunidad Autónoma Vasca, tratarse de fines de semana, periodos coincidentes con el inicio o fin de las vacaciones estacionales, puentes festivos u otros acontecimientos.

Igualmente, en esta resolución se habilitan una serie de corredores transversales que permiten a los transportistas atravesar la Comunidad en determinadas fechas restringidas. El criterio determinante en la selección de los corredores ha sido afectar lo mínimo posible a la seguridad vial y a la fluidez de la circulación, partiendo de los datos de que dispone la Dirección de Tráfico y de la experiencia adquirida en el desarrollo de las labores de vigilancia, control y regulación del tráfico. Así, todas las vías seleccionadas para conformar los corredores disponen de dos o más carriles de circulación para cada sentido, salvo la carretera BI-625 que tiene por objeto servir de enlace entre la AP-68 y la A-8 para dar continuidad a los recorridos.

Era berean, bidezkotzat jotzen da Frantziako mugarantz doan trafikoa murriztea, Frantziako bide-sare guztian ibilgailu astunen zirkulazioari ezarri zaizkion mugaketen ondorioz, halako ibilgailuak mugaren inguruetan ez pilatzearren.

Hori dela bide, Eusko Jaurlaritzako Garraio eta Herri Lan Sailak arlo horretan duen erakunde eskudunarekin eta Foru Aldundiekin bat etorriz, hau

XEDATU DUT:

1. artikulua.– Murrizketak.

Euskal Autonomia Erkidegoan ondoren zerrendatuko diren zirkulazio-murrizketak ezarri dira 2009. urterako:

Lehenengoa.– Kirol-probak, txirrindularien lasterketak eta bestelako gertaerak.

Zirkulazioko Erregelamendu Orokorraren 55. artikuluak eta II. eranskinak xedatzen dutenaren arabera, Trafikoko lurralde-arduradunek ez dute inolako kirol-probarik baimenduko (norgehiagokakoa izan ala ez izan), ezta horien aldeko txostenik emango ere, baldin eta kirol-proba horiek ebazpen honen I. eranskinean zehaztutako egunetan eta orduetan egitekoak badira, eta horiek egiteko herri barruko galtzadak eta bazterbideak bete behar badituzte, beren ezaugarriak direla-eta, salbuespen gisa onar daitezkeenak izan ezik.

Bigarrena.– Salgai arriskutsuak garraiatzen dituzten ibilgailuak.

1.– Debekatuta dago ibiltzea ebazpen honen II. eranskinean jasotzen diren bide publikoetan, ondoko egun eta orduetan, arriskuaz ohartarazteko arauzko panelik eduki behar duten ibilgailuei, horrela xedatu baita Salgai Arriskutsuen Errepidezko Garraioari buruzko Erabaki Europarrean (ADR):

– Igandeetan eta Euskal Autonomia Erkidego osoan jaiegun diren egunetan, goizeko 08:00etatik gaueko 24:00ak arte; aipatutako jaiegun horien bezperetan, larunbatak ez badira, eguerdiko 13:00etatik gaueko 24:00ak arte.

– Uztailaren 31n, 08:00etatik 24:00etara.

Salgai arriskutsuak garraiatzen dituzten 7.500 kg-tik gorako BGM duten ibilgailuei, atal honetan ezarritako murrizketez gain, edozein salgai garraiatzen duten eta 7.500 kg-tik gorako BGM duten ibilgailuei buruzko ebazpen honen hirugarren murrizketak dituenak ere aplikatuko zaizkie.

2.– Aurreko puntuan ezarritako debekuetatik salbu daude ebazpen honen III. eranskinean jasotzen diren salgaiak garraiatzen dituzten ibilgailuak, bertan xedatzen diren baldintzak betetzen badituzte.

Asimismo, se considera oportuno limitar el tráfico hacia la frontera con Francia como consecuencia del establecimiento de restricciones a la circulación que para los vehículos pesados se hace en toda la red vial francesa a fin de evitar la aglomeración de estos vehículos en las inmediaciones de la frontera.

En su virtud, y de conformidad con el organismo competente del Departamento de Transportes y Obras Públicas del Gobierno Vasco, y con las Diputaciones Forales,

DISPONGO:

Artículo 1.– Restricciones.

Durante el año 2009, se establecen en la Comunidad Autónoma del País Vasco las restricciones de circulación que a continuación se relacionan:

Primera.– Pruebas deportivas, marchas ciclistas y otros eventos.

De acuerdo con lo dispuesto en el artículo 55 y en el anexo II del Reglamento General de Circulación, aprobado por el Real Decreto 1428/2003, de 21 de noviembre, los responsables Territoriales de Tráfico no autorizarán ni informarán favorablemente prueba deportiva alguna, así como cualquier otro evento de carácter competitivo o no, cuando implique ocupación de calzada o arcenes, en las vías públicas interurbanas, durante los días y las horas que se indican en el anexo I de esta resolución, salvo aquellas que por sus características pudieran ser excepcionalmente autorizadas.

Segunda.– Vehículos que transportan mercancías peligrosas.

1.– Se prohíbe la circulación por las vías públicas interurbanas que se indican en el anexo II de esta resolución, los días y horas que se citan a continuación, a los vehículos que deban llevar los paneles de señalización de peligro reglamentarios conforme al Acuerdo Europeo sobre Transportes de Mercancías Peligrosas por Carretera (ADR):

– los domingos y los días festivos en todo el ámbito territorial de la Comunidad Autónoma del País Vasco desde las 8:00 horas hasta las 24:00 horas, y las vísperas, no sábados, de estos festivos desde las 13:00 hasta las 24:00 horas,

– el 31 de julio desde 8:00 hasta las 24:00 horas.

A los vehículos de más de 7.500 Kg de MMA que transporten mercancías peligrosas, además de las restricciones establecidas en el presente apartado, se les aplicarán las contenidas en la restricción tercera de esta resolución, sobre vehículos de más de 7.500 Kg de MMA que transporten mercancías en general.

2.– Están exentos de las prohibiciones establecidas en el punto anterior, los vehículos que transportan las materias a que se hace referencia en el anexo III de esta resolución en las condiciones que en el mismo se determinan.

Aurreko puntuan ezarritako debekuak ez dira aplikatuko salgai arriskutsuen garraioa ADRn jasotako salbuespenetakoren baten arabera egiten denean, eta salbuespenaren arrazoia zama-mota, kopuru mugatua edo garraio-mota direnean.

3.– Salgai arriskutsuak garraiatzen dituzten ibilgailuek egin beharreko ibilbideak. Salgai Arriskutsuak Errepidez Garraiatzeari buruzko Araudiaren maiatzaren 5eko 551/2006 Errege Dekretuaren 5.2 artikuluaren arabera, salgai arriskutsuak garraiatzen dituzten ibilgailuek ondoko ibilbide hauek erabili beharko dituzte:

A) Banaketarako joan-etorriak. Salgai arriskutsuak erabiltzaileei edo kontsumitzaileei banatzeko egiten diren joan-etorrietan, ibilbiderik egokiena erabiliko da, bide-segurtasunari eta trafikoaren arintasunari dagokienez. Errepide arruntetan zehar ahalik eta distantziarik laburrena egingo da salgaia eman behar den lekuraino.

Herri-guneetatik kanpo ingurabiderik, saihesbiderik edo biribilgunerik badago, derrigor erabili beharko ditu. Horrelako aukera bat baino gehiago izatekotan, herri-gunetik urrutien dagoena erabili beharko da. Herri-gunean zamalanak egiteko soilik sar daiteke, betiere, salgaiak emateko lekutik hurbilen dagoen sarrera erabiliz, ezinbestekoren bat gertatu ezean.

B) Bestelako joan-etorriak. Joan-etorriaren jatorria eta helmuga Salgai Arriskutsuen Ibilbideen Sarearen –SAIS- barruan badaude (ebazpen honen V. eranskinean dago), salgai arriskutsuak daramatzaten ibilgailuek derrigor erabili beharko dituzte euren ibilbidean.

Joan-etorriaren jatorria edo helmuga (edo biak) SAISetik kanpo badaude, sare horretan hurbilen dagoen sarreratik sartzen uzten duten errepide arruntetatik egin beharko dira joan-etorriak, galtzada bakarreko bideetan egiten den ibilbidea ahalik eta laburrena izatea bermatze aldera. Arrazoi berbera dela bide, salgaien helmugatik hurbilen dagoen irteera erabiliko da SAISetik irteteko.

SAISetik kanpo dauden ibilbide-zatietan, bide-segurtasunari eta trafikoaren arintasunari dagokienez bide egokiena erabili beharko da, eta herri-guneetatik kanpo ingurabiderik, saihesbiderik edo biribilgunerik badago, derrigor erabili beharko dira. Horrelako aukera bat baino gehiago izatekotan, herri-gunetik urrutien dagoena erabili beharko da. Herri-gunean zamalanak egiteko soilik sar daiteke, betiere, salgaiak eman behar diren lekutik hurbilen dagoen sarrera erabiliz, ezinbestekoren bat gertatu ezean.

Hemen aipatu diren bideez bestelakoetan ibiltzeko, baimen berezia beharko da, ebazpen honen 3. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz emango dena.

Las prohibiciones establecidas en el punto anterior tampoco serán de aplicación cuando el transporte de mercancías peligrosas se realice de acuerdo con alguna de las exenciones recogidas en el ADR por razón del cargamento, cantidad limitada o tipo de transporte.

3.– Itinerarios a utilizar por los vehículos que transporten mercancías peligrosas. De acuerdo con el artículo 5.2 del Real Decreto 551/2006, de 5 de mayo, Reglamento sobre Transporte de Mercancías Peligrosas por Carretera, los vehículos que transporten mercancías peligrosas deberán utilizar en su recorrido los itinerarios que se indican a continuación:

A) Desplazamientos para distribución y reparto. En los desplazamientos cuya finalidad sea la distribución y reparto de la mercancía peligrosa a sus destinatarios finales o consumidores, se utilizará el itinerario más idóneo, tanto en relación con la seguridad vial como con la fluidez del tráfico, recorriendo la mínima distancia posible a lo largo de carreteras convencionales hasta el punto de entrega de la mercancía.

Deberán utilizarse inexcusablemente las circunvalaciones, variantes o rondas exteriores a las poblaciones si las hubiere, y en caso de existir más de una se utilizará la más exterior a la población, pudiendo entrar en el núcleo urbano únicamente para realizar las operaciones de carga y descarga, y siempre por el acceso más próximo al punto de entrega salvo por causas justificadas de causa mayor.

B) Otro tipo de desplazamientos. Si los puntos de origen y destino del desplazamiento se encuentran incluidos dentro de la RIMP -Red de Itinerarios de Mercancías Peligrosas- que figura en el anexo V de esta resolución, los vehículos que transporten mercancías peligrosas deberán utilizarlos obligatoriamente en su recorrido.

Si el punto de origen o destino del desplazamiento, o ambos, quedan fuera de la RIMP, los desplazamientos deberán realizarse por aquellas carreteras convencionales que permitan acceder a dicha red por la entrada más próxima, con objeto de garantizar que el recorrido por vías de calzada única sea el más corto posible. Por esta misma razón, se abandonará la RIMP por la salida más próxima al punto de destino de la mercancía.

En las partes del recorrido que queden fuera de la RIMP se utilizará el itinerario más idóneo en relación con la seguridad vial y con la fluidez del tráfico, y deberán utilizarse inexcusablemente las circunvalaciones, variantes o rondas exteriores a las poblaciones si las hubiere, y en caso de existir más de una se utilizará la más exterior a la población, pudiendo entrar en el núcleo urbano únicamente para realizar las operaciones de carga y descarga, y siempre por el acceso más próximo al punto de entrega salvo por causas justificadas de causa mayor.

El tránsito por vías distintas de las aquí señaladas requerirá autorización especial que será emitida conforme a lo dispuesto en el artículo 3 de esta resolución.

SAISetik irten daiteke garraiolariaren ohiko bizilekura edo handik egindako joan-etorrietan, eguneroko edo asteroko atsedenaldiak egiteko edo ibilgailua konpontzeko edo mantentzeko lanetarako, betiere, ADRn zehaztutako aparkatze-baldintzak betetzen badira. SAIS uzten den kasu hauetan, gidariaren helmuga den tokitik hurbilen dagoen irteeratik irtengo da.

4.– Aurreko puntuan xedatutakoa ez da aplikatuko, salgai arriskutsuen garraioa ADRn jasotako salbuespenetakoren baten arabera egiten denean, eta salbuespenaren arrazoia zama-mota, kopuru mugatua edo garraio-mota direnean.

Hirugarrena.– 7.500 kg baino gehiagoko BGMkoak diren eta salgai arruntak garraiatzen dituzten ibilgailuak.

1.– Debekatuta dago ebazpen honen II. eranskinean jasotzen diren bide-tarte, ordu eta egunetan, 7.500 kg baino gehiagoko BGMko ibilgailuak ibiltzea.

2.– Aurreko puntuan ezarritakoaren salbuespen gisa, ebazpen honen IV. eranskinean jasotzen diren salgaiak garraiatzen dituzten ibilgailuak horietan ibili ahalko dira.

Laugarrena.– Euren ezaugarri teknikoak edo zamaren ezaugarriak direla-eta, errepidean ibiltzeko baimen berezia behar duten ibilgailuak.

Debekaturik izango dute bide publikoetatik ibiltzea, ondoren adieraziko diren egun eta orduetan, Ibilgailuei buruzko Araudi Orokorrak (2822/1998 Errege Dekretua, abenduaren 23koa) 14. artikuluan aipatzen duen baimen berezia behar duten ibilgailuek:

– Larunbatetan, 13:00etatik 24:00etara, eta igandeetan, 00:00etatik 24:00etara.

– Euskal Autonomia Erkidego osoan jaiegun diren egunetan, 00:00etatik 24:00etara, eta jaiegun horien bezperetan, 13:00etatik 24:00etara.

– Uztailaren 31n, 08:00etatik 24:00etara.

Bosgarrena.– Murrizketa osagarriak.

1.– Ustekabeko kasuak edo salbuespenezko egoerak direla-eta, ibilgailuen joan-etorria arintzeko edo zirkulazioan segurtasuna handitzeko beharrezkoa ikusten denean, Zirkulazioko Erregelamendu Orokorraren 37. eta 39. artikuluetan ezarritakoarekin bat etorriz, trafikoaren zaintzaz eta diziplinaz arduratzen den agintaritzako agenteak izango dira, hartu beharreko neurriak hartuta, murrizketak ezarriko dituztenak, behar beste denborarako.

2.– Eguraldi txarra dagoenean, 3500 kg baino gehiagoko BGM duten kamioiak, autobusak, autobus artikulatuak eta ibilgailu-taldeak bideko eskuineko erreitik

Se permitirá abandonar la RIMP para los desplazamientos cuyo destino u origen sea la residencia habitual del transportista, para efectuar los descansos diario o semanal, o para la realización de operaciones de reparación o mantenimiento del vehículo, siempre y cuando se cumplan las condiciones de estacionamiento especificadas en el ADR. En estos supuestos el abandono de la RIMP se realizará por la salida más próxima al lugar al que se dirija el conductor.

4.– Lo dispuesto en el punto anterior no será de aplicación cuando el transporte de mercancías peligrosas se realice de acuerdo con alguna de las exenciones recogidas en el ADR por razón del cargamento, cantidad limitada o tipo de transporte.

Tercera.– Vehículos de transporte de mercancías de más de 7.500 Kg de MMA.

1.– Se prohíbe la circulación a los vehículos de más de 7.500 Kg de MMA por los tramos y durante los días y horas que se indican en el anexo II de esta resolución,

2.– Como excepción a lo dispuesto en el punto anterior, se permite la circulación de los vehículos que transportan las materias a que se hace referencia en el anexo IV de esta resolución.

Cuarta.– Vehículos que por sus características técnicas o por la carga que transportan precisan autorización especial para circular.

Se prohíbe la circulación por las vías públicas a los vehículos que, en virtud del contenido del artículo 14 del Reglamento General de Vehículos, aprobado por el Real Decreto 2822/1998, de 23 de diciembre, requieran para circular la autorización especial que en él se señala, durante los siguientes días y horas:

– sábados, desde las 13:00 hasta las 24:00 horas, y domingos desde las 00:00 hasta las 24:00 horas,

– días festivos en todo el territorio de la Comunidad Autónoma, desde las 00:00 hasta las 24:00 horas, y vísperas de esos festivos desde las 13:00 hasta las 24:00 horas,

– el 31 de julio desde 8:00 hasta las 24:00 horas.

Quinta.– Restricciones complementarias.

1.– En casos imprevistos o por circunstancias excepcionales, cuando se estime necesario para lograr una mayor fluidez o seguridad de la circulación, de conformidad con lo establecido en los artículos 37 y 39 del Reglamento General de Circulación, serán los agentes de la autoridad responsable de la vigilancia y disciplina del tráfico los que, durante el tiempo necesario, determinen las restricciones mediante la adopción de las medidas oportunas.

2.– Cuando concurran fenómenos meteorológicos adversos los camiones con MMA superior a 3.500 kilogramos, los autobuses, los autobuses articulados y los

joango dira derrigorrez. Izotza edo elurra badago, ezin izango dute ez aurreratu, ezta ibilgailurik gainditu ere, aurreko paragrafoan aipatutako 37. eta 39. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz.

2. artikulua.– Salbuespenak.

Ebazpen honetan jasotako murrizketak ezartzeko orduan, Zirkulazioko Erregelamendu Orokorraren 39.5 artikuluak xedatutakoa hartu behar da beti aintzakotzat.

Zerbitzu bat nahitaez egin beharra dagoela behar bezala justifikatuta dagoenean, aldi baterako baimenak edo bidaia bakarra egiteko baimenak eman ahalko dira. Baimen horietan zehaztuko da ibilgailu jakin batek garraioa zer-nolako baldintzatan egingo duen.

3. artikulua.– Baimen bereziak.

Trafikoko lurralde-arduradunei dagokie 1. eta 2. artikuluetan xedatutako baimen bereziak ematea, horretarako duten ahalmenaz baliatuta.

4. artikulua.– Zehapenak eta zuhurtasunezko neurriak.

Ebazpen honetan dauden arautzeko neurriak ez betetzea zehatu egingo da, Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide-segurtasunari buruzko Legearen testu artikulatuan xedatutakoaren arabera.

Era berean, trafikoaren zaintzaz eta diziplinaz arduratzen den agintaritzako agenteek ibilgailua ibilgetzeko neurri osagarria har dezakete, zirkulazioa arriskutsua denean edo zirkulazioari oztopo larriak sortzen badizkio. Gainera, beharrezkoa balitz, errepidetik kendu edota gordailuan utziko da, debekua amaitu arte edo berriz abiatzeko baimena eman arte, Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide-segurtasunari buruz Legearen 70. eta 71. artikuluekin bat etorriz.

5. artikulua.– Zirkulazioaren murrizketak kentzea.

Salbuespen modura, Trafiko zuzendariak, ebazpen honetan ezarritako murrizketak aplikatzen diren denboraldietan zirkulazioak bizi duen egoera ikusita, 1. artikuluko hirugarren murrizketan jasotako ibilgailuen zirkulazioa baimen dezake. Hartara, jarraibide egokiak emango dizkio Ertzaintzari.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.– Indarraldia. Ebazpen hau indarrean egongo da 2010. urtean trafikoa arautzeko neurri bereziak hartzeko ebazpena argitaratu arte, data zehatzei dagozkien murrizketak izan ezik.

conjuntos de vehículos circularán obligatoriamente por el carril derecho de la vía, y no podrán efectuar adelantamientos ni rebasamientos en casos de nieve o hielo, de acuerdo con lo previsto en los artículos 37 y 39 mencionados en el párrafo anterior.

Artículo 2.– Exenciones.

Las restricciones a la circulación contempladas en la presente resolución se entienden sin perjuicio de lo establecido al respecto en el artículo 39.5 del Reglamento General de Circulación.

En los casos en que se considere necesaria la realización de servicios indispensables debidamente justificados, se podrán conceder autorizaciones especiales de carácter temporal, o para un solo viaje, donde se fijarán las condiciones en que un determinado vehículo realizará el transporte.

Artículo 3.– Autorizaciones especiales.

Corresponde a los responsables Territoriales de Tráfico el ejercicio de las facultades relativas al otorgamiento de las autorizaciones especiales previstas en los artículos 1 y 2.

Artículo 4.– Sanciones y medidas cautelares.

El incumplimiento de las medidas de regulación contenidas en la presente Resolución, se sancionarán, en su caso, con arreglo a lo prevenido en el Texto Articulado de la Ley sobre Tráfico, Circulación de Vehículos a Motor y Seguridad Vial.

Así mismo, los agentes de la autoridad responsable de la vigilancia y disciplina del tráfico podrán establecer la medida complementaria de inmovilización del vehículo cuando su circulación cause riesgo o perturbaciones graves al normal desarrollo del tráfico rodado, y, si fuera necesario procederán a su retirada y depósito hasta que cese la prohibición o se autorice su marcha, de conformidad con los artículos 70 y 71 del Texto Articulado de la Ley sobre Tráfico, Circulación de Vehículos a Motor y Seguridad Vial.

Artículo 5.– Levantamiento de restricciones a la circulación.

Excepcionalmente, el director de Tráfico, en función de las condiciones en que se esté desarrollando la circulación durante los períodos afectados por las restricciones establecidas en esta resolución, podrá permitir la circulación de los vehículos incluidos en el artículo 1, restricción tercera, a cuyos efectos dará las instrucciones oportunas a la Ertzaintza.

DISPOSICIONES FINALES

Primera.– Vigencia. La presente resolución permanecerá vigente hasta la entrada en vigor de la Resolución por la que se establezcan medidas especiales de regulación del tráfico para el año 2010, con excepción de las restricciones por fechas.

Bigarrena.– **II. eranskineko B.2.1 puntuaren indarraldia etetea.**– Ebazpen honen II. eranskineko B.2.1 puntua ez da indarrean sartuko, Trafiko zuzendariaren aurreko ebazpenetan, trafikoa arautzen duten neurri bereziak ezartzeko direnak, ezarritako puntu berari dagokion ebazpen judizialik ematen ez den bitartean.

Hirugarrena.– Indarrean sartzea.– Ebazpen hau 2009ko urtarrilaren 1ean sartuko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2008ko abenduaren 16a.

Trafiko zuzendaria,
ANDONI ARRIOLA GARRIDO.

Segunda.– Suspensión de la vigencia del punto B.2.1 del anexo II.– La entrada en vigor del punto B.2.1 del anexo II de esta resolución queda suspendida hasta que sea dictada resolución judicial firme respecto del mismo punto contemplado en anteriores resoluciones del Director de Tráfico que establecen medidas especiales de regulación de tráfico.

Tercera.– Esta resolución entrará en vigor el día 1 de enero de 2009.

En Vitoria-Gasteiz, a 16 de diciembre de 2008.

El Director de Tráfico,
ANDONI ARRIOLA GARRIDO.

ERANSKINA

KIROL PROBAK, TXIRRINDULARIEN LASTERKETAK ETA BESTELAKO GERTAERAK

Hauteskunde-prozesuak, erreferendumak, plebiszituak edo bestelako herri-kontsultak dauden egunetan, 00:00etatik 24:00etara.

Urtarrilaren 5eko 00:00etatik 24:00etara.

Urtarrilaren 6ko 15:00etatik 24:00etara.

Martxoaren 19ko 00:00etatik 24:00etara.

Martxoaren 22ko 00:00etatik 24:00etara.

Apirilaren 9ko 00:00etatik 24:00etara.

Apirilaren 13ko 00:00etatik 24:00etara.

Maiatzaren 1eko 00:00etatik 15:00etara.

Maiatzaren 3ko 15:00etatik 24:00etara.

Uztailaren 31ko 00:00etatik 24:00etara.

Abuztuaren 1eko 00:00etatik 24:00etara.

Abuztuaren 15eko 00:00etatik 24:00etara.

Abuztuaren 30eko 00:00etatik 24:00etara.

Abuztuaren 31ko 00:00etatik 24:00etara.

Urriaren 12ko 00:00etatik 24:00etara.

ANEXO I

PRUEBAS DEPORTIVAS, MARCHAS CICLISTAS Y OTROS EVENTOS

Desde las 00:00 horas hasta las 24:00 horas de los días en que tengan lugar procesos electorales, referendos, plebiscitos o cualquier otro tipo de consultas populares.

Desde las 00:00 hasta las 24:00 horas del día 5 de enero.

Desde las 15:00 hasta las 24:00 horas del día 6 de enero.

Desde las 00:00 horas hasta las 24:00 horas del día 19 de marzo.

Desde las 00:00 horas hasta las 24:00 horas del día 22 de marzo.

Desde las 00:00 hasta las 24:00 horas del día 9 de abril.

Desde las 00:00 hasta las 24:00 horas del día 13 de abril.

Desde las 00:00 horas hasta las 15:00 horas del día 1 de mayo.

Desde las 15:00 horas hasta las 24:00 horas del día 3 de mayo.

Desde las 00:00 horas hasta las 24:00 horas del día 31 de julio.

Desde las 00:00 horas hasta las 24:00 horas del día 1 de agosto.

Desde las 00:00 horas hasta las 24:00 horas del día 15 de agosto.

Desde las 00:00 horas hasta las 24:00 horas del día 30 de agosto.

Desde las 00:00 horas hasta las 24:00 horas del día 31 de agosto.

Desde las 00:00 horas hasta las 24:00 horas del día 12 de octubre.

Abenduaren 5eko 00:00etatik 15:00etara.

Abenduaren 8ko 15:00etatik 24:00etara.

Abenduaren 24ko 00:00etatik abenduaren 25eko 24:00etara.

2009ko abenduaren 31ko 00:00etatik 2010eko urtarrilaren 1eko 24:00etara.

ERANSKINA

SALGAIAK ORO HAR ETA SALGAI ARRISKUTSUAK

A) Murrizketa orokorrak.

7.500 kg-tik gorako BGMko ibilgailuak ezin dira ibili Euskal Autonomia Erkidegoko bide publikoetan ondorengo ordu-tarteetan:

– Larunbateko 22:00etatik igandeko 22:00ak arte.

– Euskal Autonomia Erkidego osoan jai diren egunen bezperako 22:00etatik jaiegun horietako 22:00ak arte.

B) Korridoreak.

B.1.– 7.500 kg-tik gorako BGMko ibilgailuak A atalean ezarritako egun eta orduetan ibili ahal izango dira ondoren adierazitako bideetan, B.2 atalean adierazitako egun, ordu eta tarteetan izan ezik.

Bideak: A-8, AP-68, A-15, N-1, N-1A, N-240, N-622, AP-1.

BI-625 errepidean, bi norabideetan ibili ahal izango dira, Arrigorriagako AP-68 errepidearen lotunearen eta Basauriko A-8 errepidearen lotunearen artean.

B.2.– 7.500 kg-tik gorako BGMko ibilgailuak ezin izango dira ibili ondorengo egun, ordu eta tarteetan:

B.2.1.– Urteko murrizketak.

1) Larunbateko 22:00etatik igandeko 22:00ak arte eta Euskal Autonomia Erkidego osoan jai diren egunen bezperako 22:00etatik jaiegun horietako 22:00ak arte.

Desde las 00:00 horas hasta las 15:00 horas del día 5 de diciembre.

Desde las 15:00 horas hasta las 24:00 horas del día 8 de diciembre.

Desde las 00:00 horas del 24 de diciembre hasta las 24:00 horas del día 25 de diciembre.

Desde las 00:00 horas del 31 de diciembre de 2009 hasta las 24:00 horas del día 1 de enero de 2010.

ANEXO II

MERCANCÍAS GENERAL Y MERCANCÍAS PELIGROSAS

A) Restricciones en general.

Se prohíbe la circulación por las vías públicas de la Comunidad Autónoma del País Vasco a los vehículos de más de 7.500 Kg de MMA:

– desde las 22:00 horas de los sábados hasta las 22:00 horas de los domingos, y

– desde las 22:00 horas de las vísperas de los días festivos en todo el ámbito territorial de la Comunidad Autónoma Vasca, hasta las 22:00 horas de esos días festivos.

B) Corredores.

B.1.– Se permite la circulación a los vehículos de más de 7.500 Kg de MMA durante las fechas y horarios establecidos en el apartado A, por las vías que se citan a continuación -salvo durante las fechas y horas y tramos que se indican en el apartado B.2-.

Vías: A-8, AP-68, A-15, N-1, N-1A, N-240, N-622, AP-1.

Por la BI-625 se permite la circulación en ambos sentidos entre el enlace de la autopista AP-68 en Arrigorriaga y el enlace con la A-8 en Basauri.

B.2.– Se prohíbe la circulación a los vehículos de más de 7.500 Kg de MMA por las vías que se citan a continuación durante las fechas y horarios que se indican.

B.2.1.– Restricciones anuales.

1) Desde las 22:00 horas de los sábados hasta las 22:00 horas de los domingos y desde las 22:00 horas de las vísperas de los días festivos en todo el ámbito territorial de la Comunidad Autónoma Vasca, hasta las 22:00 horas de esos días festivos.

Bidea	Izena	KP Hasiera	KP Bukaera	Norabidea
A-8	Kantauriko autobidea	104 Erletxe	0 Frantziako muga	Behobia
A-15	Nafarroa-Gipuzkoa autobia	140 Nafarroako muga	155,5	Andoain
N-1	Madril-Irun	321,4 Burgosko muga	329 Trebiñoko muga	Vitoria-Gasteiz
N-1	Madril-Irun	336 Trebiñoko muga	352 N-622 lotunea	Vitoria-Gasteiz
N-1	Madril-Irun	401,9 Nafarroako muga	486,6	Frantzia
N-1A	Lasarte-Donostia/San Sebastián			Frantzia

Vía	*Denominación*	*PK inicio*	*PK final*	*Sentido*
A-8	*Autopista Cantábrico*	*104* *Erletxe*	*0 Frontera* *Francia*	*Behobia*
A-15	*Autovía Navarra-Gipuzkoa*	*140 L.P.* *Navarra*	*155,5*	*Andoain*
N-1	*Madrid-Irun*	*321,4 L.P.* *Burgos*	*329 L.P* *Treviño*	*Vitoria-Gasteiz*
N-1	*Madrid-Irun*	*336 L.P.* *reviño*	*352* *Enlace N-622*	*Vitoria-Gasteiz*
N-1	*Madrid-Irun*	*401,9 L.P.* *Navarra*	*486,6*	*Frontera Francia*
N-1A	*Lasarte-Donostia/San Sebastián*			*Francia*

2) Atal honetan ezarritakoaren salbuespen gisa, ondoko egun eta ordu-tarteetan ibili ahal izango dira:

– Apirilaren 8ko 22:00etatik apirilaren 9ko 08:00etara.

– Apirilaren 9ko 22:00etatik apirilaren 10eko 08:00etara.

– Uztailaren 18 eta 25eko eta abuztuaren 1,8 eta 15eko 22:00etatik 24:00etara.

B.2.2.– Aldi jakin batzuetako murrizketak.

1) 7.500 kg-tik gorako BGMko ibilgailuak ezin dira ibili apirilaren 30etik irailaren 27ra ondorengo ordu-tarteetan:

– Larunbatetan, 09:00etatik 15:00etara, jarraian aipatzen diren bideetan.

2) Como excepción a lo dispuesto en este apartado se permite la circulación durante las siguientes fechas y horarios:

– desde las 22:00 horas del día 8 de abril hasta las 08:00 horas del día 9 de abril,

– desde las 22:00 horas del día 9 de abril hasta las 08:00 horas del día 10 de abril,

– desde las 22:00 horas hasta las 24:00 horas de los días 18 y 25 de julio, y 1,8 y 15 de agosto,

B.2.2.– Restricciones en periodos específicos.

1) Se prohíbe la circulación a los vehículos de más de 7.500 Kg de MMA desde el día 30 de abril hasta el día 27 de septiembre:

– los sábados desde las 9:00 hasta las 15:00 horas por las vías que se citan a continuación.

Bidea	Izena	KP Hasiera	KP Bukaera	Norabidea
A-8	Kantauriko autobidea	113 Malmasin	139 Kantabriako muga	Kantabria
N-634	Donostia-San Sebastián/ Santander	98 Erletxe	136 Kantabriako muga	Kantabria
N-1	Madril-Irun	352 N-622 lotunea	336 Trebiño	Burgos
N-1	Madril-Irun	329 Trebiño	321 Burgosko muga	Burgos

Vía	*Denominación*	*PK Inicio*	*PK Final*	*Sentido*
A-8	*Autopista del Cantábrico*	*113* *Malmasín*	*139* *L.P. Cantabria*	*Cantabria*
N-634	*Donostia-San Sebastián/San-tander*	*98* *Erletxe*	*136 L.P. Cantabria*	*Cantabria*
N-1	*Madrid-Irun*	*352* *Enlace N-622*	*336* *Treviño*	*Burgos*
N-1	*Madrid-Irun*	*329* *Treviño*	*321* *L.P. Burgos*	*Burgos*

– Igande eta jaiegunetan, 09:00etatik 15:00etara, jarraian aipatzen diren bideetan.

– los domingos y festivos desde las 9:00 hasta las 15:00 horas por las vías que se citan a continuación.

Bidea	Izena	KP Hasiera	KP Bukaera	Norabidea
A-8	Kantauriko autobidea	113 Malmasin	139 Kantabriako muga	Kantabria
N-1	Madril-Irun	352 N-622 lotunea	336 Trebiño	Burgos
N-1	Madril-Irun	329 Trebiño	321 Burgosko muga	Burgos

Vía	*Denominación*	*PK Inicio*	*PK Final*	*Sentido*
A-8	*Autopista del Cantábrico*	*113* *Malmasín*	*139* *L.P. Cantabria*	*Cantabria*
N-1	*Madrid-Irun*	*352* *Enlace N-622*	*336* *Treviño*	*Burgos*
N-1	*Madrid-Irun*	*329* *Treviño*	*321* *L.P. Burgos*	*Burgos*

– Igande eta jaiegunetan, 15:00etatik 22:00etara, jarraian aipatzen diren bideetan.

– los domingos y festivos desde las 15:00 hasta las 22:00 horas por las vías que se citan a continuación.

Bidea	Izena	KP Hasiera	KP Bukaera	Norabidea
A-8	Kantauriko autobidea	139 Kantabriako muga	113 Malmasin	Bilbao
N-1	Madrild-Irun	321 Burgosko muga	329 Trebiño	Vitoria-Gasteiz
N-1	Madril-Irun	336 Trebiño	352 N-622 lotunea	Vitoria-Gasteiz

Vía	*Denominación*	*PK Inicio*	*PK Final*	*Sentido*
A-8	*Autopista del Cantábrico*	*139* *L.P. Cantabria*	*113* *Malmasín*	*Bilbao*
N-1	*Madrid-Irun*	*321* *L.P. Burgos*	*329* *Treviño*	*Vitoria-Gasteiz*
N-1	*Madrid-Irun*	*336* *Treviño*	*352* *Enlace N-622*	*Vitoria-Gasteiz*

2) Orobat, 7.500 kg-tik gorako BGMko ibilgailuak ezin izango dira ibili ondorengo egun, ordu eta tarteetan:

– Ekainaren 26ko eta abenduaren 4ko 15:00etatik 22:00etara.

– Ekainaren 27ko eta abenduaren 5eko 8:00etatik 15:00etara.

2) Asimismo, se prohíbe la circulación a los vehículos de más de 7.500 Kg de MMA por las vías que se citan a continuación en las fechas y horarios que se indican:

– desde las 15:00 hasta 22:00 horas los días 26 de junio y 4 de diciembre, y

– desde las 8:00 hasta 15:00 horas los días 27 de junio y 5 de diciembre.

Bidea	Izena	KP Hasiera	KP Bukaera	Norabidea
A-8	Kantauriko autobidea	113 Malmasin	139 Kantabriako muga	Kantabria
N-634	Donostia-San Sebastián/ Santander	98 Erletxe	136 Kantabriako muga	Kantabria

Vía	*Denominación*	*PK Inicio*	*PK Final*	*Sentido*
A-8	*Autopista del Cantábrico*	*113* *Malmasín*	*139* *L.P. Cantabria*	*Cantabria*
N-634	*Donostia-San Sebastián/Santander*	*98* *Erletxe*	*136* *L.P. Cantabria*	*Cantabria*

– Abenduaren 8ko 15:00etatik 22:00etara.

– desde las 15:00 hasta 22:00 horas el día 8 de diciembre.

Bidea	Izena	KP Hasiera	KP Bukaera	Norabidea
A-8	Kantauriko autobidea	139 Kantabriako muga	113 Malmasin	Bilbao
N-634	Donostia-San Sebastián/Santander	136 Kantabriako muga	98 Erletxe	Bilbao

Vía	*Denominación*	*PK Inicio*	*PK Final*	*Sentido*
A-8	*Autopista del Cantábrico*	*139* *L.P. Cantabria*	*113* *Malmasín*	*Bilbao*
N-634	*Donostia-San Sebastián/Santander*	*136* *L.P. Cantabria*	*98* *Erletxe*	*Bilbao*

– Apirilaren 8ko, apirilaren 30eko, uztailaren 24 eta 30eko, abuztuaren 14ko eta abenduaren 24 eta 31ko 15:00etatik 24:00etara.

– Apirilaren 9ko, maiatzaren 1eko, uztailaren 25 eta 31ko, abuztuaren 15eko 8:00etatik 15:00etara.

– desde las 15:00 hasta 24:00 horas los días 8 de abril, 30 de abril, 24 y 30 de julio, 14 de agosto, 24 y 31 de diciembre, y

– desde las 8:00 hasta 15:00 horas los días 9 de abril, 1 de mayo, 25 y 31 de julio, 15 de agosto.

Bidea	Izena	KP Hasiera	KP Bukaera	Norabidea
A-8	Kantauriko autobidea	113 Malmasin	139 Kantabriako muga	Kantabria
N-634	Donostia-San Sebastián/ Santander	98 Erletxe	136 Kantabriako muga	Kantabria
N-1	Madril-Irun	352 N-622 lotunea	336 Trebiño	Burgos
N-1	Madril-Irun	329 Trebiño	321 Burgosko muga	Burgos
N-240	Tarragona-Bilbao (Barazartik)	0 Bizkaia	43,9 Bizkaia	Vitoria-Gasteiz
N-240	Tarragona-Bilbao (Barazartik)	0 Araba	22 Araba	Vitoria-Gasteiz

Vía	*Denominación*	*PK Inicio*	*PK Final*	*Sentido*
A-8	*Autopista Cantábrico*	*113* *Malmasín*	*139 L.P. Cantabria*	*Cantabria*
N-634	*Donostia-San Sebastián/Santander*	*98* *Erletxe*	*136 L.P. Cantabria*	*Cantabria*
N-1	*Madrid-Irun*	*352* *Enlace N-622*	*336* *Treviño*	*Burgos*
N-1	*Madrid-Irun*	*329* *Treviño*	*321* *L.P. Burgos*	*Burgos*
N-240	*Tarragona-Bilbao por Barazar*	*0* *Bizkaia*	*43,9 Bizkaia*	*Vitoria-Gasteiz*
N-240	*Tarragona-Bilbao por Barazar*	*0* *Araba*	*22 Araba*	*Vitoria-Gasteiz*

– Apirilaren 13ko, maiatzaren 3ko, abuztuaren 16 eta 31ko, abenduaren 27ko eta 2010eko urtarrilaren 3ko 15:00etatik 22:00etara.

– desde las 15:00 hasta 22:00 horas los días 13 de abril, 3 de mayo, 16 y 31 de agosto, 27 de diciembre, y 3 de enero de 2010.

Bidea	Izena	KP Hasiera	KP Bukaera	Norabidea
A-8	Kantauriko autobidea	Kantabriako muga	113 Malmasin	Bilbao
N-634	Donostia-San Sebastián/ Santander	136 Kantabriako muga	98 Erletxe	Bilbao
N-1	Madril-Irun	336 Trebiño	352 N-622 lotune	Vitoria-Gasteiz
N-1	Madril-Irun	321 Burgosko muga	329 Trebiño	Vitoria-Gasteiz
N-240	Tarragona-Bilbao (Barazartik)	43,9 Bizkaia	0 Bizkaia	Bizkaia
N-240	Tarragona-Bilbo (Barazartik)	22 Araba	0 Araba	Bizkaia

Vía	*Denominación*	*PK Inicio*	*PK Final*	*Sentido*
A-8	*Autopista Cantábrico*	*139 L.P. Cantabria*	*113* *Malmasín*	*Bilbao*
N-634	*Donostia-San Sebastián/San-tander*	*136 L.P. Cantabria*	*98* *Erletxe*	*Bilbao*
N-1	*Madrid-Irun*	*336* *Treviño*	*352* *Enlace N-622*	*Vitoria-Gasteiz*
N-1	*Madrid-Irun*	*321* *L.P. Burgos*	*329* *Treviño*	*Vitoria-Gasteiz*
N-240	*Tarragona-Bilbao por Barazar*	*43,9* *Bizkaia*	*0* *Bizkaia*	*Bizkaia*
N-240	*Tarragona-Bilbao por Barazar*	*22* *Araba*	*0* *Araba*	*Bizkaia*

III. ERANSKINA

SALGAI ARRISKUTSUAK

1.– Beti eta salbuespenik eskatu beharrik izan gabe:

Salgaiak	Garraiatzeko baldintzak
- Etxeetarako gas likidotuak, botiletan sartua nahiz ontziratu gabea, bai banaketa-guneetara eramateko, baita kontsumitzaileei banatzeko ere.	- ADRn ezarritakoak.
- Gasolindegiak hornitzeko gaiak.	- ADRn ezarritakoak.
- Errepide-garraioko ibilgailuak hornitzeko erregaiak kontsumo propioko zentroetara zuzenduta.	- ADRn ezarritakoak.
- Trenbide-garraioa hornitzeko erregaiak.	- ADRn ezarritakoak.
- Itsasontziak eta aireontziak hornitzeko helburua duten portuetara eta aireportuetara zuzendutako erregaiak.	- ADRn ezarritakoak.
- Etxeko berogailuetarako gasolioak.	- ADRn ezarritakoak.
- Osasun-etxeen funtzionamendurako beharrezkoak diren gasak, baita etxeetan osasun-laguntza emateko garraiatu behar diren gasak ere, betiere, garraioa helburu horretarako dela eta zentro horietara doala frogatzen bada.	- ADRn ezarritakoak.

ANEXO III

MERCANCIAS PELIGROSAS

1.– De modo permanente sin necesidad de solicitar exención:

Mercancías	*Condiciones de transporte*
- Gases licuados de uso doméstico, embotellado o a granel, bien para su transporte a puntos de distribución o para reparto a consumidores.	*- Las previstas en el ADR.*
- Materias destinadas al aprovisionamiento de estaciones de servicio.	*- Las previstas en el ADR.*
- Combustibles destinados a centros de consumo propio para el aprovisionamiento de vehículos de transporte por carretera.	*- Las previstas en el ADR.*
- Combustibles para abastecimiento al transporte ferroviario.	*- Las previstas en el ADR.*
- Combustibles con destino a puertos y aeropuertos con la finalidad de abastecer buques y aeronaves.	*- Las previstas en el ADR.*
- Gasóleos de calefacción para uso domestico.	*- Las previstas en el ADR.*
- Gases necesarios para el funcionamiento de Centros Sanitarios, así como gases transportados a particulares para asistencia sanitaria domiciliaria, en ambos casos cuando se acredite que se transportan a esos destinos.	*- Las previstas en el ADR.*

2.– Salbuespena eskatu eta justifikatzen bada.

2.– Solicitando y justificando la exención:

Salgaiak	Garraiatzeko baldintzak
- Industria-guneen funtzionamendurako behar-beharrezkoak diren salgaiak.	- ADRn ezarritakoak eta baimena ematerakoan agintzen direnak.
- Osasun-etxeetako edo etxeetarako produktuak, 1. atalean aurreikusten ez direnak.	- ADRn ezarritakoak eta baimena ematerakoan agintzen direnak.
- Portuetara zein portuetatik eta aireportuetara zein aireportuetatik garraiatzen diren salgai arriskutsuak, nahitaez debekatutako egunetan zirkulatu behar dute.	- ADRn ezarritakoak eta baimena ematerakoan agintzen direnak.
- Piroteknia-gaiak.	- Baimena ematerakoan agintzen direnak.
- Beste edozein gai, salbuespenezko kasuetan garraiatzea nahitaezkoa bada.	- Baimena ematerakoan agintzen direnak.

Mercancías	*Condiciones del transporte*
- Productos indispensables para el funcionamiento continuo de Centros Industriales.	*- Las previstas en el ADR y las que sean impuestas en la autorización.*
- Productos con origen o destino en Centros Sanitarios no contemplados en el apartado 1.º.	*- Las previstas en el ADR y las que sean impuestas en la autorización.*
- Transporte de mercancías peligrosas hacia o desde los puertos marítimos y aeropuertos cuando inevitablemente tengan que circular en las fechas objeto de prohibición.	*- Las previstas en el ADR y las que sean impuestas en la autorización.*
- Material de pirotecnia.	*- Las que sean impuestas en la autorización.*
- Otras materias que por circunstancias de carácter excepcional se considere indispensable sean transportadas.	*- Las que sean impuestas en la autorización.*

IV. ERANSKINA

SALGAIAK ORO HAR

Beti eta salbuespenik eskatu beharrik izan gabe:

– Bizirik dauden animaliak garraiatzea.

– Salgai galkorrak garraiatzea.

– Azokak, erakusketak, ikuskizunak eta bestelako gertakariak (kirol, kultura, hezkuntza edo politika arlokoak, alegia) instalatzeko zama-ibilgailuak.

– Soil-soilik prentsa garraiatzen dutenak.

– Posta eta telegrafoak garraiatzen dituztenak.

ANEXO IV

MERCANCÍAS EN GENERAL

De modo permanente sin necesidad de solicitar exención:

– Transporte de animales vivos.

– Mercancías perecederas.

– Vehículos en carga para la instalación de ferias, exposiciones y espectáculos, manifestaciones deportivas, culturales, educativas o políticas.

– Transporte exclusivo de prensa.

– Transporte de correo y telégrafos.

– Ikus-entzunezko komunikabideen unitate mugikorrak garraiatzen dituztenak.

– Garraiatutako gaiak herriz herri saltzeko bereziki egindako ibilgailuak.

– Larrialdietarako ibilgailuak.

– Hutsik doazen ibilgailuak, aurretik aipatutako garraio-mota batzuei lotuta.

– Matxura edo istripua izan duten ibilgailuei laguntzeko diren garabi-ibilgailuak, gertaera izan den tokian lagun dezaketenak edo handik gertu gordeta gera daitezkeen lekura eramaten laguntzen dutenak eta hutsik itzultzen direnak.

– Transporte de unidades móviles de medios de comunicación audiovisual.

– Vehículos especialmente construidos para la venta ambulante de los productos transportados.

– Vehículos de atención de emergencias.

– Vehículos en vacío, relacionados con los transportes mencionados anteriormente.

– Vehículos grúas que realicen labores de asistencia a vehículos averiados o accidentados, en el lugar del suceso o en el traslado al punto más próximo a aquel donde pueda quedar depositado y el regreso en vacío.

V. ERANSKINA

SALGAI ARRISKUTSUEN IBILBIDEEN SAREA
(SAIS)

Salgai arriskutsuen garraioa oro har:

ANEXO V

RED DE ITINERARIOS PARA MERCANCÍAS PELIGROSAS
(RIMP)

Transporte de mercancías peligrosas en general:

Bidea	Ibilbidea
A-8	Behobia/BI-625 errepidearekiko lotunea (A-8, 21. irteera)
A-8	Kantabriarekiko muga/A-68 errepidearekiko lotunea
BI-625	Basauri (A-8, 21. irteera)/Arrigorriaga (A-68 errepidearekiko lotunea)
A-68	Errioxarekiko muga/A-8
N-637	Barakaldo (Gurutzeta)/Galdakao (Erletxe)
N-634*	Bilbo/A-8 errepidearekiko lotunea Etxebarrin (A-8, 20. irteera)
N-622	Vitoria-Gasteiz/ Altube A-68
A-1	Burgosekiko muga/ N-1 errepidearekiko lotunea Armiñonen
N-1	Burgosekiko muga/Trebiñorekiko muga (Armiñon)
N-1	Trebiñorekiko muga (Iruña Oka)/Nafarroarekiko muga (Asparrena)
N-1	Nafarroarekiko muga (Etxegarate)/ N-IA errepidearekiko lotunea (Lasarte)
N-IA	N-IA errepidearekiko lotunea (Lasarte)/ A-8 errepidearekiko lotunea (Aritzeta)
A-15	Nafarroarekiko muga (Berastegi)/ Andoain, N-1 errepidearekiko muga

Vía	*Recorrido*
A-8	*Behobia/Enlace BI-625 (salida 21/A-8)*
A-8	*Límite Cantabria/enlace AP-68*
BI-625	*Basauri (A-8, salida 21)/Arrigorriaga (Enlace AP-68)*
AP-68	*Límite La Rioja/A-8*
N-637	*Barakaldo (Cruces)/Galdakao (Erletxe)*
*N-634**	*Bilbao/Enlace A-8 Etxebarri (salida 20 A-8)*
N-622	*Vitoria-Gasteiz/ Altube AP-68*
AP-1	*Límite Burgos/ Enlace N-1 en Armiñón*
N-1	*Límite Burgos/Límite Treviño (Armiñón)*
N-1	*Límite Treviño (Iruña de Oca)/Límite Navarra (Asparrena)*
N-1	*Límite Navarra (Etxegarate)/Enlace N-IA (Lasarte)*
N-IA	*Enlace N-IA (Lasarte)/Enlace A-8 (Aritzeta)*
A-15	*Límite Navarra (Berastegi)/ Andoain Enlace N-1*

– Debekatuta dago salgai arriskutsuak daramatzaten ibilgailuak Malmasingo tunelean ibiltzea, zama-mota, kopuru mugatua edo garraio mota dela-eta salbuetsita daudenak izan ezik (halakoak ADRn jasota daude).

– N-634 errepidea, goiko taulan azaldutako ibilbidean, Bilbon sartzeko eta Bilbotik irteteko bakarrik erabil daiteke.

– Queda prohibido circular por el túnel de Malmasín a todos los vehículos que transporten mercancías peligrosas salvo a aquéllos que se encuentren exentos de acuerdo con algunas de las exenciones recogidas en el ADR por razón del cargamento, cantidad limitada o tipo de transporte.

– La vía N-634, en el recorrido descrito en el cuadro superior, únicamente podrá ser utilizada para acceder o salir de Bilbao.




RED DE ITINERARIOS DE MERCANCIAS PELIGROSAS DE LA COMUNIDAD AUTÓNOMA VASCA
BILBAO
Arrigorriaga
DONOSTIA-SAN SEBASTIAN
VITORIA-GASTEIZ
Vilanueva de Valdegovia
Miranda de Ebro
Haro
LOGROÑO
PAMPLONA-IRUÑA
Autopistas
Resto de la red preferente
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
HERRIZAINGO SAILA
Tráfico Zuzendaritza
DEPARTAMENTO INTERIOR
Dirección de Tráfico